

2009



EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA
evaluación diagnóstica

EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA EUSKAL
AUTONOMIA ERKIDEGOAN

Probako hizkuntzari buruzko 13 galdera



IKASTETXEETARAKO INFORMAZIOA

ELISKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION



SARRERA

Itxura guztien arabera, errendimendu-proba erantzuteko erabilitako hizkuntza ez da neutroa, ikerketek frogatzen duten moduan, emaitzetan eragina izan baitezake. AEBetako AERA, APA eta NCMEko 9. estandarrean adierazten den moduan¹: *“Hizkuntza erabiltzen duen edozein test, neurri batean, testa egiten duenaren hizkuntza-gaitasunak neurtzeko tresna ere bada. Bereziki kezagarria da hori testeko hizkuntza ama-hizkuntza ez dutenentzat”*.

Ikuspegi horretatik, ikastetxe bakoitzak gogoeta egitea eta ikasleek ebaluazio diagnostikoaren probak egin ditzaten aukeraturako hizkuntzari buruzko erabakiaren arduradun izatea komeni da. Horretarako, beharrezkoa da aldez aurretik, ikastetxeek erabaki hori irizpideekin hartzeko zenbait informazio lagungarri izatea, eta betiere, erabaki horren oraingo ondorioen eta etorkizuneko berri izatea. Hau da bigarren dokumentu honen helburua eta dagoeneko argitaratuta dagoen *“Ebaluazio diagnostikoa zer den eta oinarrizko beste 25 galdera”* (http://www.ediagnostikoak.net/ediag/eus/Informazio-materialak/25_Galdera_5.pdf) argitalpenaren jarraipena da eta probako hizkuntzaren gaia du ardatz nagusia modu zehatzean.

Erabakia hartzeko unean, dokumentu honetan aurkezten diren informazioez gain, beste bi ideia ere oso kontuan izatea komeni da:

a) Ebaluazio honek Lehen Hezkuntzako 4. mailako eta DBHko 2. mailan dauden ikasleak EAEko curriculum ofizialean adierazitako oinarrizko konpetentzien garapenean zer egoeratan dauden diagnostikatu nahi du; beraz, ikastetxe bakoitzeko edukien garapen zehatzen garapen mailatik bereizita dago. Hau da, ez ditu ikasleen ezagutzak sakontasunean balioetsi nahi, horiek aukeratzeko eta aplikatzeko duten konpetentzia baizik, betiere, testuinguru eta egoera desberdinetan arazoak konpontzeko helburuarekin.

b) Honelako konpetentzien ebaluazioetan, ikaslea ahalik eta baldintza onenetan moldatzea komeni da; hau da, emaitzarik onenak izango dituela uste den baldintzetan. Baldintza horien artean, zalantzarik gabe, errendimendu-probak erantzuteko hizkuntza ere sartzen da. Dagozkien proben bidez euskaraz eta gaztelaniaz duen hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia modu zehatzean neurtuko denez, ikastetxe bakoitzak aztertuko beharko du, testuinguru soziolinguistikoa aintzat hartuta, ikasleek Matematika-konpetentziari eta Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako konpetentziari buruzko probetan zer hizkuntzatan erantzun dezaketen ondoen.

OINARRIZKO HIZTEGIA

- **PROBAKO HIZKUNTZA edo aplikaziokoa:** ikasleek errendimendu-proban egindako itemak edo galderak erantzuteko erabiltzen duten hizkuntza da.
- **IRAKASTE-HIZKUNTZA edo eskolakoa:** zenbait arloren ezagutza lortzen den eta batez ere irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak garatzen diren hizkuntza da. Hainbat heziketa- edo eskola-hizkuntza egon daitezkeen arren, eskola-curriculumean nagusia den hura hartzen da hizkuntza nagusitzat (D ereduan, euskara; A ereduan, gaztelania; eta egoera eta garapen desberdinak izan arren, B ereduan, biak).
- **FAMILIA-HIZKUNTZA:** familia-ingurunean, komunikazio-harremanetan erabili ohi den edo diren hizkuntza(k). Familia-hizkuntza bat baino gehiago dagoenean, komunikazio-intimitatean erabiltzen duen hura hartuko da hizkuntza nagusitzat.

¹ *The Standards for Educational and Psychological Testing*. American Educational Research Association (ERA), American Psychological Association (APA), National Council on Measurement in Education (NCME). 1999.

PROBAKO HIZKUNTZARI BURUZKO INFORMAZIOA

1. Zer hizkuntzatan egingo dira hizkuntza-gaitasunei buruzko probak?

Hizkuntza-komunikaziorako konpetentziaren kasuan, noski, ez da aplikazio-hizkuntza aukeratzeko modurik izango. Derrigorrez, ikasle guztiek euskaraz erantzun beharko dituzte euskaraz duten hizkuntza-konpetentzia neurtzen duten probak, eta gaztelaniaz, berriz, gaztelera duten hizkuntza-konpetentzia neurtzen dutenak. Beraz, hizkuntza-komunikaziorako konpetentziak ez diren (Matematikarako konpetentzia eta Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako konpetentzia) ez bezala, ez da kontuan hartuko ikasle bakoitzaren familia- edo jatorri-hizkuntza.

2. Ikasleek zer hizkuntza erabil ditzakete hizkuntza-komunikaziorako ez diren konpetentzien errendimendu-probak erantzuteko?

Ebaluazio diagnostiko honetan, bi hizkuntza baino ez dira erabiliko: **euskara eta gaztelania**. Errendimendu-probak egiteko ikasleak zer hizkuntza aukeratu duen erabakitzeko, ikastetxe bakoitzak bi aukera izango ditu:

- **Irakaste-hizkuntza:** kasu honetan, aplikazio honetan ebaluatuko diren konpetentzia ez-linguistikoekin zuzenean lotutako alorren irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan nagusiki erabiltzen den hizkuntza aukeratu da. Aukera hau aukeratu gero, talde bateko ikasle guztiek hizkuntza berean erantzun beharko dituzte probak.
- **Familia-hizkuntza:** kasu honetan, ikasleek familia-ingurunean erabili ohi duten hizkuntza aukeratu da. Familia-hizkuntza zein den jakiteko, ikastetxeak 5. galderan azaltzen den galdetgia erabili beharko du. Aukera honetan, taldeko ikasle bakoitzak euskara edo gaztelania erabiliko du galderei erantzuteko, ikaslearen familia-hizkuntza ohikoaren arabera.

3. Zer argudio daude familia-hizkuntza probetako hizkuntza gisa erabiltzea arrazoitzeko?

Ikastetxean eztabaidatzeko balio dezaketen tresna gisa, bi informazio-dokumentu proposatzen ditugu:

- **1. dokumentua. Probako hizkuntza.** (ikus 10. orrialdea)
- Emaitzetan probako hizkuntzaren eraginari buruz ISEI-IVEIk egindako ikerketa: <http://www.isei-ivei.net/cast/pub/influencialenguacast.pdf>.

4. Probako hizkuntza gisa irakaste-hizkuntza aukeratu gero, zer egoeratan zehazten da?

Irakaste-hizkuntzaren aukera **3 egoeratan** zehazten da:

- A ereduko ikasleek gaztelaniaz egin beharko dituzte probak.
- D ereduko ikasleek euskaraz erantzun beharko dituzte probak.
- B ereduan ikasi duten ikasleek honako irizpide hauen arabera erantzungo dituzte probak:

- a) Matematikarako konpetentzian, Matematika ikasgaia emateko ikastetxeak erabilitako hizkuntzaren arabera;
- b) Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako konpetentzian, ikastetxean Lehen Hezkuntzan Inguruaren ezagueran erabilitako hizkuntzaren arabera, eta DBHko ikastetxeen kasuan, Naturaren Zientzietan eta Teknologian erabilitako hizkuntzaren arabera (*ikastetxean DBHko bi ikasgai horiek hizkuntza desberdinetan ematen baldin badira, bi horien artean, ikasleen curriculumean ordu kopuru gehien dituen hizkuntza aukeratu beharko da*).

5. Aplikazio-hizkuntza gisa ikasle bakoitzaren familia-hizkuntza aukeratuz gero, nola identifikatzen da beren familia-hizkuntza?

Ikasle bakoitzaren familia-hizkuntza identifikatzeko, **2. dokumentua** (ikus 13. orrialdea) erabili beharko da, eta horren bidez zehaztuko da ikaslearen familia-hizkuntza euskara edo gaztelania den. Probako hizkuntzak emaitzetan duen eragina aztertzeko egindako ikerketek erakusten dutenaren arabera (<http://www.isei-ivei.net/cast/pub/influencialenguacast.pdf>), Euskadiko egungo hizkuntza-testuinguruan, ikaslearen familia-hizkuntza euskara dela ulertzeko honako bi baldintza hauek batera gertatu behar dute:

- Bai aitak, bai amak euskaraz hitz egitea².
- Familian beti edo ia beti euskaraz hitz egitea.

Gainerako egoerek adierazten dute familiako ohiko hizkuntza gaztelania edo euskara ez den besteren bat dela. Esate baterako, familian, euskararen erabilera-maiztasuna adierazitakoa baino txikiagoa izatea edo bi gurasoek edo tutoreek euskaraz ez jakitea.

6. *Ikasle etorkinek zer hizkuntzatan erantzun beharko dituzte probak?*

Oso garrantzitsua da gogoan izatea euskal hezkuntza-sisteman ikasturte bat baino gehiago daramaten ikasleek soilik hartu beharko dutela parte ebaluazio honetan derrigorrez³. Aplikazio-hizkuntza gisa euskara edo gaztelania ez diren beste hizkuntza batzuk aplikatzea ezinezkoa izango litzatekeenez, **ikasle etorkin guztiek euskara edo gaztelania erabili beharko dute** probei erantzuteko. Bi egoera gerta daitezke:

- **Latinoamerikar jatorria duten ikasle etorkinak:** Erabili beharreko irizpideak etorkinak ez diren gainerako etorkinentzat erabilitako berberak izango dira.
- **Latinoamerikar jatorria ez duten ikasle etorkinak:** Ikastetxeak irakaste-hizkuntzaren alde egiten badu, ikasle mota hori gainerako ikasleen egoera berean egongo da. Ikastetxeak familia-hizkuntza aukeratzen baldin badu aplikazio hizkuntza gisa, irakasleek aukeratu beharko dute ikasle bakoitza mota honetako probei erantzuteko bi hizkuntzetatik –euskaraz edo gaztelaniaz- zeinetan moldatzen den ondoen.

² Dokumentu honetan aita eta ama aipatzen direnean, tutoreekin edo ordezkari legalekin edo oinarrizko familia-gunea osatzen duten beste arduradun heldu batzuekin bizi diren ikasleen kasuak ere ulertu behar dira.

³ Ikastetxeari egoki iruditzen bazaio, euskal irakaskuntza-sisteman urtebete baino gutxiagoz dauden eta gainera proben aplikazio-hizkuntza ezagutzen ez duten ikasle etorkinek ebaluazio diagnostikoan parte hartu ahal izango dute, baina, ebaluazio diagnostikoa arautzen duen 2008ko abenduaren 2ko Aginduko 7.5 artikulua adierazten duen bezala, haien emaitzak ez dira taldeko eta ikastetxeko puntuazio orokorrean kontuan hartuko.

7. Ikastetxearen erabakiak berdina izan behar al du ebaluazio honetan parte hartzen duten eredueta talde guztientzat?

Ez. Ikastetxeak probako hizkuntzari buruz hartzen duen erabakiak hizkuntza-eredu guztiei modu orokorrean eragitea da logikoena, baina ikastetxeak hizkuntza-eredu bakoitzerako aplikazio-hizkuntza desberdina aukera dauka, probako hizkuntzari buruzko gogoetaren eta eztabaidaren ostean egoki iruditzen bazaio. Hala ere, hartutako erabakiak (irakaste-hizkuntza edo familia-hizkuntza) berdina izan beharko du ikastetxeko hizkuntza-eredu bereko talde guztientzat.

8. Talde bateko ikasleek egin al ditzakete probak hizkuntza desberdinetan?

Bai. Baina talde bereko ikasleek probak hizkuntza desberdinetan erantzuteko kasua gertatu ahal izateko, ikastetxeak familia-hizkuntza hartu beharko du aplikazio-hizkuntza gisa, eta gainera, 5. galderan adierazten den 2. Dokumentuaren bidez ikasle bakoitzaren familia-hizkuntza identifikatu beharko du. Aldiz, ikastetxeak erabakitzen baldin badu irakaste-hizkuntza izango dela aplikazio-hizkuntza, kasu horretan, talde bereko ikasle guztiek hizkuntza berean erantzun beharko dituzte probak.

9. Hizkuntza arlokoa ez den ebaluatutako gaitasunaren arabera, aplikazio-hizkuntza desberdina izan al daiteke?

Bai, baina aplikazio-hizkuntza gisa irakaste-hizkuntza aukeratu duten B ereduko ikastetxeen kasuan soilik. B ereduko ikastetxeetan, gaitasun bat hizkuntza batean eta bestea beste hizkuntza batean erantzun daiteke, zuzenean gaitasun horiekin lotutako alorreko edo alorretako irakaste-hizkuntza ere desberdina baldin bada, 4. galderan azaldu den moduan.

10. Oraingo honetan aplikazio-hizkuntzari buruz hartutako erabakia mantendu egin beharko al da ebaluazio diagnostikoko hurrengo aplikazioetan ere?

Ez. Ikasturte bakoitzean, ikasleek probak erantzuteko zer hizkuntza erabiliko duten erabaki beharko du ikastetxeak; beraz, aplikazio batetik bestera erabakia alda daiteke.

Hala eta guztiz ere, probako hizkuntza aldatu baino lehen, honako hau kontuan izatea komeni da: Ebaluazio honen helburua ikastetxeei ondoz ondoko aplikazioetan lortutako emaitzen artean konparaziozko datuak eskaintzea da; beraz, jakitun izan behar dugu probako hizkuntzari buruzko erabakia aldatuz gero, balitekeela aplikazio baten eta bestearen artean emaitzak guztiz konparagarriak ez izatea; izan ere, emaitzetan eragina izan dezakeen oinarritzko aldagaietako bati eragin diezaioke.

11. Probak egiteko aukeratutako hizkuntzarekin lotuta, lortutako emaitzei buruzko zer informazio jasoko du ikastetxe bakoitzak?

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak bere gain hartuko du proposamen eta egoera ugarien datu orokorrak entregatzeko konpromisoa probako aplikazio-hizkuntzari dagokionez. Horri esker, zentroek emaitzak alderatu eta hobetzeko ondorioak adostu ahal izango dituzte.

PROBAKO HIZKUNTZARI BURUZKO ERABAKIA HARTZEKO ETA JAKINARAZTEKO PROZEDURA

12. Probako hizkuntzari buruzko erabakia hartzeko zer prozesu jarraitu beharko du ikastetxeak?

Ebaluazio diagnostikoaren koordinaziorako taldeak, 2008ko abenduaren 2ko Aginduaren 5.3 artikulua ikatzen duenak eta ebaluazio diagnostikoaren prozedura arautzen duenak, probako hizkuntzari buruzko gogoeta-prozesua sustatu beharko du irakasle taldean; horretarako, dokumentu honetan eskaintzen diren informazioak, irizpideak eta tresnak erabiliko ditu.

Probako hizkuntza aukeratzeko prozesua honako grafiko honetan erakusten dena izango da; ikus daitekeen moduan, www.ediagnostikoak.net zerbitzarian datuak jakinaraziz eta sartuz amaitzen da; bertan sartu dira ebaluazio honetan parte hartu duten Lehen Hezkuntzako 4. mailako eta DBHko 2. mailako ikasleen datuak.

PROBAKO HIZKUNTZA AUKERATZEKO PROZESUA

Probako hizkuntza gisa, gure ikasleentzat zer aukera interesatzen zaigu?

IRAKASTE-HIZKUNTZA

FAMILIA-HIZKUNTZA

1. dokumentua (10. orr.)

Zein da taldearen hizkuntza-eredua?

Nola identifikatzen da familia-hizkuntza?

A EREDUA

Ikasleek probak GAZTELANIAZ erantzuten dituzte

1. Inkesta ikasleei pasatu

2. dokumentua: Bilketa-fitxa (13. orr.)

D EREDUA

Ikasleek probak EUSKARAZ erantzuten dituzte

2. Ikasle bakoitzaren datuak aztertu

3. dokumentua: Irizpideak (14. orr.)

B EREDUA

Ikasleek probak GAZTELANIAZ edo EUSKARAZ erantzuten dituzte, ebaluatutako gaitasunekin lotura zuzenena duten arloak emateko erabili den hizkuntzaren arabera

3. Ikasle bakoitzaren hizkuntza identifikatu.


DATUAK HEMEN TXERTATU: www.ediagnostikoak.net



13. Ikastetxeak nola jakinaraziko du proben aplikazio-hizkuntzari buruz hartutako erabakia?

Aukeratutako aplikazio-hizkuntza jakinarazteko prozesua honelakoa izango da:

0. www.ediagnostikoak.net orrian sartu, web pribatuan sartzeko kodearekin eta ikastetxeko kodearekin.



1. Datuak sartzeko orrialdeko 1. atalean (*Ikastetxearekin harremanetarako datuak / Datos de contacto del centro*), batetik, proba-hizkuntzari buruzko azalpenak dituen PDF formatuko azalpen-dokumentua topatuko duzu, deskargatzeko; eta bestetik, gaitasun ez-linguistikoen probei ikasleek zer hizkuntzatan erantzutea nahi duzun adierazteko atala topatuko duzu.

1. Ikastetxearekin harremanetarako datuak / Datos de contacto del centro

ikastetxearen datuak / Datos del centro
Akatsaren bat izango balitz, adierazi aldaketak / En caso de algún error, indicar los cambios

Izena / Nombre: Tfnoa: Eposta / Email:

Zuzenketak / Cambios: Tfnoa: Eposta / Email:

Harremanetarako ikastetxeko pertsonak / Personas de contacto en el Centro.

Zuzendaria / Director(a): Tfno.: Eposta / Email:

Ebaluazio Arduraduna / Responsable evaluación: Tfno.: Eposta / Email:

IKT / PREMIA Arduraduna / Responsable TIC / PREMIA: Tfno.: Eposta / Email:

Probaren Hizkuntza / Lengua de la Prueba

Eredua / Modelo	Irakaste-hizkuntza / Lengua de instrucción	Familia-hizkuntza / Lengua familiar
A	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
B	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
D	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>

Deskargatu jarraibideak [pdf]
Descargar instrucciones

GORDE aldaketak eta itzuli / GUARDAR cambios y volver

Une horretan, prozedura honi jarraitu beharko diogu:

- Informazio-dokumentua deskargatu;** ikastetxean gogoeta egiteko eta erabakiak hartzeko oinarri gisa balioko digu.
- Ikastetxean probako hizkuntzari buruzko gogoeta egin ondoren, ikastetxeko zuzendariak "**Probako hizkuntza / Lengua de la prueba**" atalean eredu linguistiko bakoitzerako hautatutako aukera sartu beharko du: Irakaste-hizkuntza edo familia-hizkuntza.
- Sartutako **datuak gorde.** (*GORDE aldaketak eta itzuli / GUARDAR cambios y volver*)

2 Ikastetxean dauden eredu linguistiko bakoitzerako aurreko atalean adierazitako erabakiaren arabera, bigarren atal honetan (*Ikastaldearen datuak/Datos de los grupos de alumnos-as*) taula bat sortuko da automatikoki eta **ikastetxean dauden eredu bakoitzerako ikasleen taldeak bakarrik agertuko dira aktibatuta** (ikasturte honetako lehen hiruhilekoaren amaieran ikastetxe bakoitzak emandako datuen arabera).

Taldearen eredu linguistikoaren arabera eta probako hizkuntzari buruz ikastetxean hartutako erabakiaren arabera, bi egoera egongo dira:

a) Probako hizkuntza gisa **irakaste-hizkuntza** aukeratu bada:

- **A eta D ereduko taldeetan**, probako hizkuntza automatikoki esleituko da: GAZTELANIA lehen kasuan eta EUSKARA bigarrenean. Kasu horietan, beraz, ez da beste ezer egin beharko.
- **B ereduko taldeetan**: Ikasturte honetan ebaluatuko diren kompetentzia ez-linguistikoei dagozkien probak **IKASTALDE BAKOITZAK** zer hizkuntzatan –euskaraz edo gaztelaniaz- egingo den adierazi beharko da. Amaitutakoan, ez da beste ezer egin beharko.

2. Ikastaldearen datuak / Datos de los grupos de alumnos(as)

Se ha elegido LENGUA DE INSTRUCCIÓN

Modelo A Eredua				Modelo B Eredua						Modelo D Eredua			
Taldeak / Grupos		Hizkuntza / Lengua		Taldeak / Grupos		Hizkuntza / Lengua				Taldeak / Grupos		Hizkuntza / Lengua	
Izena Nombre	Kopu. Num.	Matematika	Zientziak	Izena Nombre	Kopu. Num.	Matematika		Zientziak		Izena Nombre	Kopu. Num.	Matematika	Zientziak
		Matemáticas	Ciencias			Matemáticas	Ciencias	eus	cas			eus	cas
2º ESO A	13	cas	cas		0	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>		0	eus	eus
2º ESO C	16	cas	cas		0	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>		0	eus	eus
	0	cas	cas		0	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>		0	eus	eus
	0	cas	cas		0	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>		0	eus	eus
	0	cas	cas		0	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>		0	eus	eus
	0	cas	cas		0	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>		0	eus	eus
	0	cas	cas		0	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>		0	eus	eus
	0	cas	cas		0	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>		0	eus	eus

>>> GORDE aldaketak eta itzuli / GUARDAR cambios y volver <<<

A EREDUKO TALDEAK:
 automatikoki proben hizkuntza gisa GAZTELANIA esleituko zaie.

B EREDUKO TALDEAK: probak zer hizkuntzatan egingo dituzten markatu beharko da -EUSKARA EDO GAZTELANIA-.

D EREDUKO TALDEAK:
 automatikoki proben hizkuntza gisa EUSKARA esleituko zaie.

b) Probako hizkuntza gisa **familia-hizkuntza** aukeratu bada:

- Kasu honetan, eredu linguistikoa edozein izanik ere, ikastetxe bakoitzak bidalitako **zerrendetan sartu** beharko da eta ikasle bakoitzaren **familia-hizkuntza adierazi** –euskara edo gaztelania-, dokumentu honetan adierazitako irizpideen arabera.

2. Ikastaldeen datuak / Datos de los grupos de alumnos(as)

Se ha elegido LENGUA FAMILIAR (aparecerán activados sólo el modelo o modelos elegidos para lengua familiar)

Modelo A Eredua			Modelo B Eredua			Modelo D Eredua		
Taldeak Grupos		Hizkuntza / Lengua	Taldeak Grupos		Hizkuntza / Lengua	Taldeak Grupos		Hizkuntza / Lengua
Izena Nombre	Kopu. Num.	Joan taldera Ir al grupo	Izena Nombre	Kopu. Num.	Joan taldera Ir al grupo	Izena Nombre	Kopu. Num.	Joan taldera Ir al grupo
2º ESO A	13	⇒		0	⇒		0	⇒
2º ESO C	16	⇒		0	⇒		0	⇒
	0	⇒		0	⇒		0	⇒
	0	⇒		0	⇒		0	⇒
	0	⇒		0	⇒		0	⇒
	0	⇒		0	⇒		0	⇒
	0	⇒		0	⇒		0	⇒
	0	⇒		0	⇒		0	⇒
	0	⇒		0	⇒		0	⇒

>>> GORDE aldaketak eta itzuli / GUARDAR cambios y volver <<<

Eredu linguistikoa edozein izanik ere, ikasleen zerrendetan sartu beharko da familia-hizkuntza betetzeko. Geziekin talde bakoitzera joan ahal izango dugu.

Documento sin título - Windows Internet Explorer

http://localhost/ebadiag09/5_ikasletalde_leng.php?qcod=0142008&qcodweb=100723&qmodelo=A&nggrupo=1&adngrupo=2%20ESO%20A

Documento sin título

ed 2009 **Ikasleen zerrenda / Listado de alumnos(as)**
(Deskargatu jarraibideak / Descargar instrucciones [pdf])

Ikastetxea / Centro: [] Etapa **DBH/ESO** Eredua / Modelo: **A** Taldea / Grupo: **2º ESO A**

Eskolatzeko libururik gabeko ikasleentzat: Sartu ikaslearen zbkia. eta sakatu "Sartu / Generar" botona
Para el alumnado sin libro de escolaridad: Introducir el nº de alumno(a) y pulsar el botón "Sartu / Generar"

Beste aplikazio batzuetatik **datuak inportatu** **Importar datos** desde otras aplicaciones **Joan / Ir**

FAMILIA HIZKUNTZA aukeratu da / Se ha elegido LENGUA FAMILIAR

>>> GORDE datuak / Guardar datos <<<

Ikas. zb. Nº Alu.	Escola liburua Libro escolaridad	Sexua Sexo 1 neska chica 2 mutila chico	Jaioteguna Fecha nac.			CEldun ikasleak / Alumnado ACI			Etork. Inmi.	Euskara gabekoa Exento Euskera	Absen. Absen.	Bakarrik DBH/ ESO			Hizkuntza Lengua	
			Urtea Año	Hila Mes	Eguna Dia	Garbitu Limpiar	Globala Orokorra	Arla bat edo gehiagotara En una o más áreas				Curriculumera sartzeko bakarrik Sólo acceso currículo	Garbitu Limpiar	EHEP PIE	EHEP PIE	eus
1	PV-A352200	1	1995	1	16	⇒	○	○	□	□	⇒	○	○	○	○	○
2	PV-A384415	2	1993	5	18	⇒	○	○	□	□	⇒	○	○	○	○	○
3	PV-A355047	2	1995	6	1	⇒	○	○	□	□	⇒	○	○	○	○	○
4	PV-A384423	2	1993	9	29	⇒	○	○	□	□	⇒	○	○	○	○	○
5	PV-A302152	1	1994	5	17	⇒	○	○	□	□	⇒	○	○	○	○	○
6	PV-A351453	1	1992	10	22	⇒	○	○	□	□	⇒	○	○	○	○	○
7	PV-A384426	2	1993	7	23	⇒	○	○	□	□	⇒	○	○	○	○	○
8	PV-A384427	1	1994	1	6	⇒	○	○	□	□	⇒	○	○	○	○	○
9	PV-A302251	1	1993	1	19	⇒	○	○	□	□	⇒	○	○	○	○	○

OSO GARRANTZITSUA DA SARTUTAKO DATU GUZTIAK GORDETZEAZ EZ AHAZTEA.

1. DOKUMENTUA: PROBAKO HIZKUNTZA

1. HIZKUNTZA ERABILTZEN DUTEN PROBAK, NEURRI BATEAN, HIZKUNTZAREN PROBA DIRA.

AEBetako AERA, APA eta NCMEn 9. zenbakiko estandarrak hau nabarmentzen du:

- “Hizkuntza erabiltzen duen edozein test, neurri batean, testa egiten duenaren hizkuntza-gaitasunak neurtzeko tresna ere bada. Bereziki kezkarria da hori testeko hizkuntza ama-hizkuntza ez dutenentzat”. (1)

TESOL ingeleseko irakasleen elkarteak honako hau nabarmentzen du:

- “Ingeles-ikastun batek matematikako edo zientzietako testa egiten duenean, ez dago argi emaitzek zer neurritan islatzen duten ingeleseko ezagutza edo alorrari buruzko ezagutza.”(2)

2. HIZKUNTZA BATEAN IKASITAKOIA BESTERA PASATZEN DA.

Bournot-Tritesek eta Reederrek honako hau esan zuten 2001ean:

- “Globalizazioarekin eta herritarren mugimenduarekin, probako hizkuntza oso gai garrantzitsua da. Proba ama-hizkuntzan egiten ez duten edo ikasgaia irakasteko erabili den hizkuntza eta probakoa bat ez datozen kasuetan, ikasleak desabantailan al daude? Probaren emaitzek ikasleen benetako potentziala islatzen al dute?”

“*Interdependence Revisited*” ikerketan honako hau erantzun zuten:

- “Aipatu genuen moduan, ikasleek beren ama-hizkuntzan egin zuten ebaluazioa, baina matematika eta zientziak bigarren hizkuntzan ikasi zituzten. Itxuraz, horrek ez zien eragin uste zen adinako kalterik. Horrek sinesgarritasuna ematen dio Cummins-en (1981) “interdependentziaren hipotesiari”. Hipotesi horren arabera, ezagutza kognitibo akademikoa leku komun batean pilatzen da eta hizkuntza batean edo beste batean hitz egiteko edo ulertzeko gaitasunaren azpian dago. Kasu honetan, murgiltze-ikasleek ezagutza hizkuntza batean lortu zuten, baina beste hizkuntza-testuinguru batean erabili zuten.”
- ...“Ikerketa honek erakusten du ikasleek ez dutela arazorik matematika frantsesez ikasi eta proba ingelesez erantzuteko.”...“Ikerketa honek hizkuntza batetik bestera pasatzeko gaitasun egokia dagoela ere nabarmentzen du, hizkuntza batean ikasitako edukia beste hizkuntzan berreskura daitekeela egiaztatuz, ikasleek bi hizkuntzetan nahikoa gaitasun edukiz gero, betiere.” (3)

3. MURGILTZE-IKASLEEK ONDOEN MOLDATZEN DIREN HIZKUNTZAN ATERATZEN DUTE ETEKINIK HANDIENA.

North Carolina School Psychology Association: “Baliteke testaren hizkuntzan nahikoa gaitasun lortu ez duten banakoekin erabilitako testek neurtu nahi diren gaitasunak ez islatzea. Beraz, garrantzitsua da erositasunen edo aldaketen bidez, edo ahal denean, testa ikaslearen ama-hizkuntzan aplikatuz, testean edo aplikazioan nahasgarriak diren baldintzak murriztea”. (4)


British Columbiako (Kanada) Hezkuntza Sailak hau nabarmendu du:

- “...Albertako Ikerketek frogatu dute murgiltze-ikasleek emaitza okerragoak lortzen dituztela zientzietako, matematikako eta gizarteko probak frantsesez eginda, ingelesez eginda baino (Alberta Education, 1991, 1992, Day and Shapson, 1996). Hortik atera daiteke murgiltze-ikasleek ebaluazioa frantsesez egiten dutenean, ez direla gai beren ezagutzak eta gaitasunak ondo erakusteko.” (5)

Hong-Kongeko Txinako Unibertsitateko Sui-Chu Ho eta Yee-fun Man-ek honako ondorio hauek atera zituzten PISAko proben ildotik:

- “Emaitzek adierazten dute lagineko EMI ikastetxe guztiek txineraz ingelesez baino emaitza askoz hobekak lortu zituztela Irakurketa eta Zientzien testean.
- “...Hasteko, hizkuntzak zerikusi handia duen alorretan, Irakurketan eta Zientzietan, esaterako, ikasleen errendimendua gutxietsita dago ebaluazioa ingelesez egiten denean (2H). 2H-n ez dute 1H-n adinako gaitasunik; horregatik gertatzen da hori.” (6)

4. BERTAKO IKERLARIK BERRETSI DITUZTE DATU HAUEK.



- TIMSS probak D ereduko 415 ikasleri aplikatu zitzaizkien 2002an.

- **Ikasle guztiek euskaraz erantzun zituzten.**
- “Etxean hitz egiten den hizkuntza” aldagaia kontrolatu zen.
- Probak matematikan eta zientzietan oinarritzen dira.
- Aplikazio hau izan zen 2003an garatu beharreko TIMSS ikerketaren hasierako proba.
- Etxean euskaraz hitz egiten duten D ereduko ikasleek, bai matematikan, bai zientzietan, emaitza hobeak lortu zituzten gaztelaniaz hitz egiten zutenek baino.
- Zientzietako aldeak (bertako itemek hizkuntza-karga handiagoa dute) nabarmenagoak dira.
- Egin dugun orientazioaren arloko ikerketak argi erakutsi digu D ereduko ikasleek ondoen menderatzen duten hizkuntzan lortuko lituzketela emaitzarik onenak, eta ez irakaste-hizkuntzan. (7)

ERREFERENTZIAK

- (1) *The Standards for Educational and Psychological Testing*. American Educational Research Association (AERA), American Psychological Association (APA), National Council on Measurement in Education (NCME). 1999
- (2) <http://www.languagepolicy.org/documents/pressroom/TESOL%20NCLB.pdf>
- (3) *Interdependence Revisited: Mathematics Achievement in an Intensified French Immersion Program*. Monique Bournot-Trites, Kenneth Reeder, *The Canadian Modern Language Review*, 58-1, 2001
- (4) <http://ncschoolpsy.org/NCSPALEPPProfessionalPracticePaper.pdf>
- (5) <http://www.bced.gov.bc.ca/assessment/social96/chap6.htm>
- (6) <http://www.isei-ivei.net/cast/pub/PISA-lengua-Instru-HongKong.pdf>
- (7) <http://www.isei-ivei.net/cast/pub/lenguaPruebaHongKong.pdf>
- (8) <http://www.isei-ivei.net/cast/pub/influencialenguacast.pdf>

2. DOKUMENTUA. FAMILIA-HIZKUNTZA BILTZEKO FITXA.

(Fitxa hau ebaluazio diagnostikoan parte hartuko duten Lehen Hezkuntzako 4. mailako eta DBHko 2. mailako ikasleek erantzun beharko dute)

Ikastetxea	<input type="text"/>		
Ikaslea	<input type="text"/>		
Jaioteguna	<input type="text" value="19"/>	/	<input type="text"/>
Neska	<input type="checkbox"/>	Urtea	Hilabetea
Mutila	<input type="checkbox"/>	Eguna	
Maila:	<input type="text"/>	Taldea	<input type="text"/>

1. Zein hizkuntzez zarete gai hitz egiteko amak, aitak eta zuk? (Mesedez markatu behar dituzun lauki guztiak)

	Amak	Aitak	Zuk
a Euskaraz	<input type="checkbox"/> ₁	<input type="checkbox"/> ₁	<input type="checkbox"/> ₁
b Gaztelaniaz	<input type="checkbox"/> ₂	<input type="checkbox"/> ₂	<input type="checkbox"/> ₂
c Beste batez	<input type="checkbox"/> ₃	<input type="checkbox"/> ₃	<input type="checkbox"/> ₃

2. Zein da etxean erabiltzen duzun hizkuntza? (Mesedez markatu lauki bat bakarrik)

- a Beti euskaraz ₁
- b Gehienbat euskaraz ₂
- c Gehienbat gaztelaniaz..... ₃
- d Beti gaztelaniaz..... ₄
- e Beste batez ₅

3. DOKUMENTUA. FAMILIA-HIZKUNTZA IDENTIFIKATZEKO IRIZPIDEAK.

Ikasle bakoitzaren familia-hizkuntza identifikatzeko, irizpide hauek erabili beharko dira:

a) **Familia-hizkuntza euskara**: honako irizpide hauek aldi berean betetzen dituzten ikasleak:

- Amarekin eta aitarekin euskaraz hitz egiten du.
- Etxean, beti edo ia beti euskaraz hitz egiten du.

b) **Familia-hizkuntza euskara ez dena** (beraz, probak gaztelaniaz egingo ditu): aurreko bi irizpideetako edozein betetzen ez dituzten gainerako ikasleak.

